

Literatura

(Literature)

Urkizu, Patri
UNED
Dpto. Filología Clásica
Senda del Rey, s/ n
28040 Madrid

Euskal literatura ez da, eta are gutxiago Euskal Herriko Literatura uharte bat, zeren eta Europako mendebaldean, –eta Euskal Herria bertan dago kokaturik–, ez dago literatur nazional isolaturik. Azken mende-laurdenean literatur-produkzioa euskaraz asko igo arren, batipat narratziogintza-erloan, ez da prozesu bera eman ez kalitatean ez eta irakurtzaileenean. Izpiritu kritikoa eskas ikusten da. Dena den, hemen aurkezten dira ikuspegi orokor eta iradokizunez beteak irakasleok: Marijose Olaziregi, –literatur feminista-ren aldarrikatzailea–, Hegoaldeko euskal literaturaz ikuspegi orokorra emanez; Txuma Lasagabaster, –maisuen maisu–, Euskal Herrian egiten den gaztelaniazko literaturaz mintzo; Jon Casenave & Lucien Etchezarreta, –Iparraldeko ahotsak– bertan egiten den bai euskal bai frantses literaturaz ari; Ipar-Ameriketan euskal etorritako pertsonaiez ingelesez egiten den literaturaz David Río, eta Vahan Sarkisian, –ekialdeko enbaxadorea–, Detxepare armeniar nola itzuli duen adieraziz.

Giltza-Hitzak: Euskal Herriko Literatura. XX. mendea.

No constituye la literatura vasca, y menos aún la Literatura del País Vasco, ninguna isla, ya que en Europa occidental, –y el País Vasco está situado dentro de ella–, no existen literaturas nacionales aisladas. Aunque en el último cuarto de siglo la producción literaria en lengua vasca haya aumentado considerablemente, sobre todo en el terreno de la narrativa, no se ha producido el mismo proceso si miramos a la calidad o en lo que respecta a los lectores. Se adolece de espíritu crítico. En cualquier caso, los trabajos que aquí se presentan ofrecen perspectivas generales ricas en sugerencias. La profesora Marijose Olaziregi –reivindicadora de una literatura feminista–, nos da una visión general de la literatura vasca del País Vasco peninsular; Txuma Lasagabaster –maestro de maestros–, nos habla de la literatura en castellano que se hace en el País Vasco; Jon Casenave & Lucien Etchezarreta –portavoce del País Vasco continental–, nos informan de la literatura que allí se produce, tanto en vasco como en francés; David Río diserta sobre la literatura que sobre personajes de origen vasco se produce en lengua inglesa en Norteamérica, y Vahan Sarkisian, –embajador de oriente–, nos explica cómo ha traducido Detxepare al armenio.

Palabras Clave: Literatura del País Vasco. Siglo XX

La littérature basque, et encore moins la Littérature du Pays Basque, ne constitue d'île, car en Europe occidentale, –et le Pays Basque est situé au sein de l'Europe occidentale–, il n'existe pas de littératures nationales isolées. Bien que dans le dernier quart de siècle la production littéraire en langue basque ait augmenté considérablement, surtout dans le domaine de la narration, le même processus ne s'est pas produit en ce qui concerne la qualité ou les lecteurs. On pêche par esprit critique. Dans tous les cas, les travaux qui sont présentés ici offrent des perspectives générales riches en suggestions. Le professeur Marijose Olaziregi –revendicatrice d'une littérature féministe–, nous donne une vision générale de la littérature basque du Pays Basque péninsulaire; Txuma Lasagabaster –maître des maîtres–, nous parle de la littérature en espagnol qui se fait dans le Pays Basque; Jon Casenave et Lucien Etchezarreta –portes-paroles du Pays Basque continental– nous informent sur la littérature produite là-bas, aussi bien en basque qu'en français; David Río disserte sur la littérature qui, sur des personnages d'origine basque, est produite en langue anglaise en Amérique du nord, et Vahan Sarkisian –ambassadeur d'orient– nous explique comment il a traduit Detxepare en arménien.

Mots Clés: Littérature du Pays Basque. XX^e siècle.

XV Congreso de Estudios Vascos: Euskal zientzia eta kultura, eta sare telematikokoak = Ciencia y cultura vasca, y redes telemáticas = Science et culture basque, et réseaux télématiques = Basque science and culture, and telematic networks (15. 2001. Donostia). – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2002. - P 635-637. - ISBN: 84-8419-906-1.

AURKEZPENA

Jaun-andreok, egun-on;
Señores y señoras, buenos días;
Messieurs et mesdames, bonjour à tous et à toutes

Atzo, Gipuzkoako Foru Aldundian Anjel Lertxundik prestatuturiko Koldo Mitxelena gure artean liburu bikiaren aurkezpenean esaten zigun Diputatu Nagusi Sudupe jaunak, maisuari jarraiki, behar-beharrezkoa dugula inoiz baino gehiago une honetan kritiko zortzak izatea.

Ea bada, egin ditzagun ariketa batzuk EUSKO IKASKUNTZAK antolatutako duen bere XV. Kongresu hau aitzakitza harturik.

Eta lehen-lehenik azter dezagun Biltzarreko titulua bera: Euskal zientzia eta kultura, eta sare telematikoak. Eta bat aski ez eta bi ezari ditu izena eman dionak. Ez dut uste hau *hizkuntzaren kalitate maila etengabe jasotzea* denik kongresuko titulu-sortzaileak, aldarrikatzen duen bezala. Ez al zen egokiago esatea Zientzia, kultura eta sare telematikoak Euskal Herrian –hain modan dagoen hitz sorgindu horrek agertu behar badu–?

Bestalde nola onar daiteke Eusko Ikaskuntzan sail guztiak zientifikoak direlarik, zientzia eta kulturaren arteko bereizketa atzerakoi hori? Ikerketak beti, dena dela gaia, zientifikoak beharko dute izan eta honek eskatzen dituen baldintzak bete, noski.

Bi. Alkorta jaunak, Kongresu honetako lehendakariak, Teresa Salak egindako elkar hizketa, besteak beste, honakoxea dio: *nos hallamos en un momento idóneo para debatir profunda, abierta y democráticamente*.

Ea bada, eztabaida dezagun.

Ez ote da une oro, mementu oro egoki eta *idóneo* eztabaidatzeko sakonki, eta zergatikakoen azken punduraino iristeko, argiak eta ilunak aztertzeko, onurak eta kalteak neurtzeko? Beraz, gaur, bai. Kongresu honetan bai. Usteak truka ditzagun, irizpideak konpara, eta ondorioak atera. Baina bihar eta etzi ere bai. Eta etzidamu kongresua bukatutakoan. Nolako baldintzetan daude, ordea, gure gizartean heriotzez mehatxaturikoak beren irizkiak aske adierazteko?

Literatura eta antzez arteak sailean gaude kokaturik kongresu honetan. Eta zertan diren adierazi behar dugu hemen, antza. Jakin, ikasi dugu ere programaren sarreran *performance a litzate keela ezer izatekotan, sail honetako sei adarron arteko lotura*.

Ez genekien hitz ingeles dotore horren beharrik genuenik, *Jirai eta Ekin* erakundearen lema dugunean, baina halere hobeto dago hori literaturarentzat antzez arteen azpi multzotzat kontsideratzea baino, sekulan adarronik izan den ez jakin arren, Brassens-ek kantatzen zituenez aparte.

Eta lot gakizkion hariari.

Euskal Herrian egiten den literaturaz mintzatze-ko ekarri ditugu hona lau aztertzaile paregabe: Maria Jose Olaziregi, Jesus Maria Lasagabaster, Luzien Etchezarreta eta Jon Casenave. Hiru Unibertsitateko doktore irakasle eta bat mundu honetatik at baina komunikabideen munduari guztiz atxikia azkeneko hogeitun urteetan. Beraiek esplikaturiko digute zer izan diren, nola dauden, zertan diren hizkuntza ezberdinetako literaturak. Osasun onean edo eritasunaz jota.

Frankfurt-ko ferian izandako eta orain saltsa guztietan ageri den Harkaitz Cano gazteak euskal literatura aipatzerakoan, Auden poeta ingelesa eta honen *Islandiako gutunak* aipatzen zituen, eta euskal literaturaren *soledad*-eaz, bakartasunaz mintzozen, uhartekoekin konparaturik.

Irudi hau erabiliz eta areagotuz Mari Jose Olaziregik zioen *El sistema literario vasco es una isla, una isla a la que arriban muchos barcos pero de la que zarpan pocos*.

Ez da lehen aldia uhartearena aipatzen dela, eta ez soilik, literaturarentzat baizik eta euskarentzat berarentzat. Ene ustez, ordea, oso kritiko behar dugu izan topikoekin, zeren jada Mitxelena bera altxatu zen 1963ko *Lenguas y protolenguas* liburuan, Saussurek zioen kontu haren kontra: *On ne pouvait rien tirer du basque, parce que étant isolé, il ne se prête à aucune comparaison*. Baina nola ezetz? Hor ditugu latina eta hizkuntza erromanikoak eta ongi konparatzen jakinez gero ondorio aski garrantzitsurik atera dezakegu bere historiaz. Ongi konparatzen jakin behar, ordea.

Halaber René Wellek-ekin nago faltsua dela guztiz, mendebaldean bederen, –eta ene uste apalez, Europako mendebaldean kokaturik dago Euskal Herria–, gerta daitekenik *literatur nazional isolaturik*, oraingo gazteek esaten duten eran, zeren eta mendebaldeko literaturan, eta gu barmean gaude, noski, osotasun bat, totalitate bat, –har ezak hori, bost t–, multzo orokor bat moldatzen duen. Alegia, nazio batetik bestera pasatzen direla hala gaiak, erak eta jeneroak, nola ideiak eta irudiak. Eta Lotman-ek dioen bezala *The Structure of the Artistic Text* lanean, alegia, *Testu Artistikoaren Egitura*-n, literatura egitura supralinguistikoa da, hizkuntzaren gainetik dagoen zerbait.

Bai, baina hizkuntzaz egina, eratua eta moldatua.

Gaur egun XXI. mende hasiera honetan badirudi ikus-entzunezko komunikabideak baztertzen, txokoratzen eta ahantzarazten ari direla liburua, baina hemen tinko eta sutsu aitortu behar dut, nik neuk bederen, oraindik ez direla gai izan giza formazioan liburua ordezkatzeko, eta hau nahita nahiezkotzat jotzen dudala. Eta salatzen dugu nola gure gizartean ematen ari den edozein emaitza sasikulturalaren, –zaborreria hutsa ez esatearren–, onartze akritiko eta desjerarkizatua.

Gizarte kritiko eta gazte irakurle onak, bortizkeria ororen kontrakoak sortu behar bazituen gerlez eta totalitarismoz beterikako XX. mendeko heziketa sistemak, aitortu behar dut etsipenez ez duela homelakorik lortu eta produkzioak gora egin badu kalitateaz nere dudak, zalantzak eta kezkek ditudala. Non daude euskal irakurleak? Non irakurle eta iritzi-emaile kritiko eta zentzudunak komunikabideetan eta politikan?

Baina gai guzti hauetaz eta besteetaz, XXI mendean gizarteak eta literaturak dituen errozkez, desfioez eta egitekoez, edo gaur arte nola heldu dioten errealitateari, irakatsi digutenaz eta diezakegutenaz mintzatuko zaizkigu gure gaurko hizlariak.

Eta beraiek baitute hitza has nadin neroni ibiltzen.